

ZERGATIK ERREFUSATZEN DUGU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZAREN LEGE-PROIEKTUA?

EHIGEek eskola publikoan oinarritutako hezkuntza sistema propio baten alde egiten du, herritar guztiei kalitatezko hezkuntza, kohesionatua, laikoa eta euskalduna eskaintzeko behar diren baliabide guztiak izango dituen. Helburu hori ez dago jasota EAEko Hezkuntzaren Lege-Proiektuan.

1

EZ DU LEHENESTEN ESKOLA PUBLIKOA, HURBILEKO HEZKUNTZA, KOHESIONATUA, LAIKOA ETA EUSKALDUNA BERMA DEZAKEEN BAKARRA. Eskola publikoa hezkuntza-sistemaren ardatz gisa jarri beharrean, itunpeko irakaskuntzari subsidiariorotasuna emanez, maila berean ipintzen ditu eskola publikoa eta itunpeko eskola pribatua Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoaren bidez.

2

HEZKUNTZA-SISTEMA DUALA BETIKOTZEN DU. Euskal hezkuntza-sistema dual publiko-pribatua ikasleak hautatzen eta gizartea desegituratzen gehien laguntzen duen tresnetako bat bihurtu da. Amaitzetik urrun, Legeak blindatu egiten du egoera hau, **ikastetxe publikoak eta pribatuak parekatuz.**

3

ITUNTZE UNIBERTSALA BETIKOTU ETA SARE PRIBATU ITUNDUAREN FINANTZAKETA HANDITZEN DU BALDINTZARIK GABE. 2 urteko gela guztiak itundu dira, eta maila guztietako (2 urtetik hasi eta Lanbide Heziketara) ikastetxe pribatu itunduen finantzaketa handitu egin da. Bitartean, ikastetxe publikoen baliabideak eta azpiegiturak hobetzeko inbertsio-planik gabe jarraitzen dugu. Azken batean, **eskola publikoak behar dituen baliabideak ikastetxe pribatuetara bideratzen dira.**

4

EZ DU AURREIKUSTEN PLAZA PUBLIKOAK HANDITZEA, ETA EZ DIO PLAZA PUBLIKORIK BERMATZEN ESKATZEN DUEN FAMILIA ORORI. Eskaintza publikorik gabeko udalerririk izaten jarraitzen dugu, ez dago eskola publikoaren perimetroa handitzeko planik, eta jada ez zaio plaza publiko bat bermatuko eskatzen duen familia orori, baizik eta Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoko plaza bat.

5

EZ DIE BERMATZEN EUSKARAREN ERABILERA ETA EZAGUTZA IKASLE GUZTIEI. Ikasleei euskararen ezagutza bermatzen ez dieten A eta B ereduko ikastetxe pribatuak ituntzen eta finantzatzen jarraitzen da. Eskola publikoak Haur Hezkuntzako ikasleen % 97,9 ditu D ereduan, ondorioz, gure hizkuntzaren etorkizunerako bermerik onena da.

6

PARTE-HARTZE ETA AUTONOMIA GUTXIAGO. Ez dago aurrerapausorik Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean jasotako ikastetxe publikoen erabaki-ahalmenei dagokienez, eta atzerapausoak daude familien parte-hartzeari eta haien guraso-elkarteen eta federazioen finantzaketari dagokienez.

¿POR QUÉ RECHAZAMOS EL PROYECTO DE LEY DE EDUCACIÓN DEL PAÍS VASCO?

EHIGE apuesta por un sistema educativo propio fundamentado en una escuela pública que cuente con todos los recursos necesarios para ofrecer una educación de calidad, cohesionada, laica y euskaldún a toda la ciudadanía. Este objetivo no está recogido en el Proyecto de Ley de Educación del País Vasco.

1

NO PRIORIZA LA ESCUELA PÚBLICA, LA ÚNICA QUE PUEDE GARANTIZAR UNA EDUCACIÓN DE CERCANÍA, COHESIONADA, LAICA Y EUSKALDÚN. En vez de colocar a la escuela pública como eje del sistema educativo, dando a la enseñanza concertada subsidiariedad, pone al mismo nivel a la escuela pública y a la escuela privada-concertada a través del Servicio Público Vasco de Educación.

2

BLINDA EL SISTEMA EDUCATIVO DUAL. El sistema educativo dual público-privado vasco se ha convertido en una de las herramientas que más está contribuyendo a la selección del alumnado y a la desestructuración social. Lejos de acabar con él, la Ley lo blinda **equiparando a los centros públicos y los centros privados.**

3

BLINDA LA CONCERTACIÓN UNIVERSAL Y AUMENTA LA FINANCIACIÓN DE LA RED PRIVADA-CONCERTADA SIN CONDICIONES. Ya se concertan todas las aulas de 2 años y ha aumentado la financiación de los centros privados-concertados de todos los niveles (desde los 2 años hasta la FP). Mientras, seguimos sin un plan de inversiones para mejorar los recursos y las infraestructuras de los centros públicos. En definitiva, **se desvían a los centros privados recursos que necesita la escuela pública.**

4

NO CONTEMPLA LA AMPLIACIÓN DE PLAZAS PÚBLICAS NI GARANTIZA UNA PLAZA PÚBLICA A TODA FAMILIA QUE LA SOLICITE. Seguimos teniendo municipios sin oferta pública, **no hay un plan para ampliar el perímetro de la escuela pública y ya no se va a garantizar una plaza pública a toda familia que la solicite, sino una plaza del Servicio Público Vasco de Educación.**

5

NO GARANTIZA EL USO Y CONOCIMIENTO DEL EUSKERA A TODO EL ALUMNADO. Se siguen **concertando y financiando centros privados de modelo A y B** que no garantizan el conocimiento del euskera al alumnado. La escuela pública, con un 97,9% de su alumnado de Infantil en modelo D, es la mejor garantía para el futuro de nuestra lengua.

6

MENOS PARTICIPACIÓN Y AUTONOMÍA. No hay ningún avance con respecto a las capacidades de decisión de los centros públicos recogidas ya en la Ley de Escuela Pública Vasca, y hay retrocesos en lo referente a la participación de las familias y la financiación de sus AMPA y federaciones.